

KARMEL

IX. GN URTEA. 1959

ORRILLA-BAGILLA

(LARREA - ZORNOTZA)

GAZTEAK

«Jauna dot Artzain —iñoan Dabid erregeak— : illunpetan nai gaitz-errekondoz ibillita be, nik ez bildurrik» (Salmu, 22).

Gaur, alan be, ba-da baztarretan naikoa artzain bageko; bakoitzak bere senetz ta oldez ibilli nai, iñoren buztarri ta lotura barik. Eta onek kalte ta gaitz esan-eziñak ekarri dakarskuz.

Gazteak dira, geienik, iñoren esanetik jo bear dabenak. Eta onek gura ez olakorik, azke-zale bai doguz osoan. Ba-leiteke zalekeri au zarra izatea; gaur aiña agertu ez, ostera, egundo be. Gaur gaztea —neska nai mutil— zoratuta dabilkigu, mundu-

ko uskeri, jolas, maitakeri ta abarrek lilluratuta; loi-ugoldetan igeri, ederra ta garbia zer danik ez dakiala. Gazte gaixoak!

Baiña eurok ete dabe orren erru osoa? Gurasoak be bai, ziur-ziur. Ez giza-bizia emon bakarrik, azi ta ezi be egin bear ditue gurasoak, euren errai-atal diran seme-alabak. Azi ta ezi Jainko-iruntzetan, garbi ta ederezale izaten erakutsi, asmo leial ta goitarrez ornidu, goi-ekzil bigunez ari-mak dardartu.

Gurasoak: ez, arren, zeuena dozuen arlo ori albora itxi; etzaiteze orretan nagi ta zabar agertu. Azi ta ezi zeuen seme-alabak.